

AransGik, Gipuzkoako Pertsona Gorren Familien Elkarteak, kanpaina jarri du martxan. Gizarte «eskuragarri bat eraikitzearen beharraz ohartaraztea» du helburu.

Gorrek entzun ez, aditu bai

Eihartze Aramendia Donostia

Beethovenek ez zuen entzuten, baina hain ezaguna den *Bederatzigarren sinfonia* eta *Alaitasunaren ereserkia* konposatu zituen. Alejandro Graham Bellek ere ez zuen entzuten eta telefonoa asmatu zuen. Jennifer Santiagok eta Casimiro Ondo Obiangek oraindik deus ere asmatu ez badute ere, bi pertsonaia ezagun horien zentzumen falta bera dute: gorraz dira. Casimiro Ondok, gainera, ikusmen arazoak ere baditu. Biak AransGik, Gipuzkoako Pertsona Gorren Familien Elkarteak atzo egin zuen agerraldian hartu zuten parte. Elkarteak *Gizarte irrisgarri baten alde* lelopean kanpaina bat jarri du abian.

zarte irrisgarri baten alde lelopean kanpaina bat jarri du abian.

Jennifer Santiagok 22 urte ditu, eta altzarien diseinua ikasten ari da Donostian. Bizkaian bizi da, eta Donostiara etorri behar izan du ikastera: «Donostian laguntza ematen duten irakasleak daude, eta hori beharrezkoa dut ikasketak aurrera ateratzeko». Santiago ez zen gorra jai, baina bederatz hilabete zituela gor geratu zen sukar handi batzuen ondorioz.

Familian lehenengo gorra izateak bere istorioa ekarri du: «Nire familian denek entzuten dute, ni naiz entzuten ez duen pertsona bakarra, eta egoera berria izan zen familian. Harrituta geratu ziren egoera hori ikusirik. Beraz,



Casimiro Ondo Obiang, kamiseta txuriarekin eta Jennifer Santiago goian, erdian. Bi alboetan, Maite Etxaniz, Gizarte Politikarako foru sailburua eta Jose Montero, AransGiko lehendakaria, atzoko agerraldian. ARGAZKI PRESS

↓ Zenbakia

1.843

■ **Gipuzkoan gorreria dutenak.** Gipuzkoako 1.843 pertsonak entzumen arazo txikiak eta larriak dituzte. Bestalde, 50 urte gora dituzten bost pertsonatik batek entzumen arazoak ditu.

informazio bila ibili behar izan ziren, AransGi Elkartearekin harremanetan jarri eta keinu hizkuntza ikasten hasi ginen denok. Orain, urte batzuk pasatuta, oso ondo daramagu egoera».

Oro har, zailtasunak gaindituak dituen arren, egunerokotasunean «mugak» dituela adierazi du: «Medikutara bakarrik joatean ondoan interprete bat behar dut, eta zerbitzu hori falta da ambulatorioetan eta ospitaletan. Bestalde, zinemara ere ezin naiz joan, zertarako? Filma DVDan plazaratu arte itxaron behar izaten dut. Beste muga bat aipatzearen, suteena dago. Nire etxean sutea gertatzen bada, ezin naiz horretaz ohartu».

Casimiro Ondo Obiangek, gorreriak sor ditzakeen zailtasunez gain, ikusmen mugatuak dakartzanak ere baditu. Haurra zela etorri zen Afrikatik Euskal Herriara gorreria zela eta. Orain, Donostian bizi da, eta batxilergoko lehenengo maila ikasten dabil. Ikusmen eta entzumen urritasuna izateagatik zailtasun ugariarekin egiten du topo: «Autobuseko txartelak hartzeko, normalean orri bat ematen didate behar dudana idatz dezadan, eta beste pertsona batek bi minutu behar baditu autobuseko txartela hartzeko, nik hamar behar ditut. Tabernetan ere mugak izaten ditut. Oso ilun baldin badago, eserita dauden pertsonak ezin ditut ikusi».

Prestatu gabeko gizartea

Aurreiritziengatik, beldurrarengatik, ezjakintsunarengatik edota inplikazio faltarengatik, gizartea oraindik ere gorrekin batean bizitzeko «prest ez» dagoela adierazi du Jennifer Santiagok: «Jendeak era askotan erantzuten du. Batzuek gutxietsi egiten gaituzte, beste batzuek alde egiten dute... Gauza asko falta dira berdintasunean bizi gaituzten: azpigituluak, itzultzaileak, baliabideak... Ez da

eskakizun bat, berdintasuna eskatzen dugu, besterik gabe».

Dena den, denborak aurrera, teknologia berriei esker lehen baino gehiago komunikatu daitezke: posta elektronikoko bidez, bideo konferentzien bidez...

Gorreria, zentzumen itsua

«Gaitasun gabezia hori ikusezina da», argi esan du Jose Montero AransGiko lehendakariak. Kei-



Zinemara ezin naiz joan, filma DVDan plazaratu arte itxaron behar izaten dut»

«Jendeak era askotan erantzuten du: batzuek gutxietsi egiten gaituzte»

JENNIFER SANTIAGO
Gorra

«Autobuseko txartelak hartzeko normalean orri bat ematen didate behar dudana idatz dezadan»

«Taberna oso ilun baldin badago, eserita dauden pertsonak ezin ditut ikusi»

CASIMIRO ONDO OBIANG
Itsu-gorra

nuen hizkuntza ofiziala bada ere, erakundeetan eta elkarrekin oraindik ere «mugak» daudela adierazi du Monterok: «Gurekin harremanetan jartzea besterik ez dute, eta guk esango diegun nondik jo».

Gizarte hau komunikazioaren gizartea dela esaten bada ere, oraindik ere komunikazioa guztiengana ez dela iristen erakusten dute Jennifer Santiago eta Casimiro Ondo Obiangen kasuek. Beethovenek eta Graham Belle bezala, zerbait asmatu beharko egoera hau aldatzeko.

BERRIAK gonbidatzen zaitu harpidedunentzat 24 sarrera ditugu



“Lola ikusten baduzu, esan aberatsa dela”

BUKATUTA

24 sarrera

Antzoki Zaharra, Donostia
Urriak 23, osteguna
21:00

estreinaldia

